

IZENPE MOBILE ERABILTZEKO TERMINOAK ETA BALDINTZAK



ALDAKETEN KONTROLA

BERTSIOA	DATA	ALDAKETAK
1.0	2019/12/12	
1.1	2022/01/13	Epigrafea. – Azala: dokumentuaren identifikazio-erreferentziak kendu dira. – 6, 7: ZPDko epigrafeen zenbaki-erreferentziak kendu dira. – 8: Informazioaren segurtasunari buruzko erreferentziak sartu dira. – 9 eta 10: idazketa eguneratu da.
1.2	2023/10/23	Epigrafea, 1. Definizioak eguneratu dira 4 Instalazio-prozesua eguneratu da
1.3	2024/08/01	Epigrafea, - 4. Izenpe Mobile instalatzeko prozesua



AURKIBIDEA

ALDAKETEN KONTROLA.....	2
1. SARRERA.....	4
2. IZENPE MOBILEREN ERREGULAZIO ESPARRUA.....	4
3. HARREMANETARAKO DATUAK	4
4. IZENPE MOBILE INSTALATZEKO PROZESUA	5
5. ERABILTZEKO ESKAKIZUNAK	5
6. BETEBEHARRAK	5
7. ERANTZUKIZUNAK.....	5
8. INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA	5
9. ALDAKETAREN KUDEAKETA.....	6
10. ARAZOAK KONPONTZEKO MEKANISMOAK.....	6



1. SARRERA

- Izenpe Mobile: pertsona fisikoak identifikatzeko ~~eta sinatzeko~~ bide bat da, eta baimena ematen du pertsona bati lotutako Izenperen gordailu zentralizatu seguru batean biltegitratutako ziurtagiri kualifikatu batzuk erabiltzeko. Honako hauek osatzen dute:
 - Gailu mugikorrean instalatutako appa, ziurtagiri kualifikatu gabe bati lotuta, komunikazio seguruen prozesuak egiteko.
 - Appera sarbidea emateko faktore biometriko edo pasahitz bat.
 - Sinadura elektronikorako ziurtagiri kualifikatu bat, Izenperen biltegi zentralizatu seguru batean jaulkia, eta sinadura egintzetarako baliagarria izango dena.

- Izenpe Mobile: pertsona fisikoak identifikatzeko aukera ematen duen bitarteko bat da, eta pertsonari lotutako Izenperen gordailu zentralizatu seguru batean biltegitratutako ziurtagiri kualifikatu bat erabiltzeko baimena ematen du. Honako hauek osatzen dute:
 - Gailu mugikorrean instalatutako appa, ziurtagiri kualifikatu gabe bati lotuta, komunikazio seguruen prozesuak egiteko.
 - Appera sarbidea emateko faktore biometriko edo pasahitz bat.
 - Sinadura elektronikorako ziurtagiri kualifikatu bat, Izenperen biltegi zentralizatu seguru batean jaulkia, eta sinadura egintzetarako baliagarria izango dena.

Dokumentu honek hori erabiltzeko terminoak eta baldintzak deskribatzen ditu.

2. IZENPE MOBILEREN ERREGULAZIO ESPARRUA

Honako erabilera-baldintza hauez gain, honako hauek osatzen dute Izenpe Mobileren esparru juridikoa:

- Identifikaziorako eta sinadurarako baliabide elektronikoak erabiltzeko terminoak eta baldintzak, www.izenpe.eus/condicionesuso
- IZENPEren Ziurtapen Praktiken Deklarazioa, www.izenpe.eus/dpc.
- *Herritarren ziurtagiriaren politika*, www.izenpe.eus webgunean argitaratua

3. HARREMANETARAKO DATUAK

EGILEAREN IZENA	Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Enpresa de Certificacion y Servicios, Izenpe, S.A.
POSTA-HELBIDEA	Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-1. 01008 Vitoria-Gasteiz
HELBIDE ELEKTRONIKOA	info@izenpe.com
TELEFONOA	902 542 542 / 945 01 62 90



4. IZENPE MOBILE INSTALATZEKO PROZESUA

Eskatzaileak hau egin beharko du:

1. Izenperen webgunearen www.izenpe.eus aurrean kautotzea, BakQ-arekin edo hodeiko ziurtagiri profesionalarekin.
2. Gailu mugikorrean instalatu beharko du Izenpe Mobile aplikazioa, Google play-tik edo App Store-tik.
3. Izenpe Mobilerako sarbidea babestuko duen PINa sortu beharko du, eta PIN hori, segurtasunez, gailu mugikorrean erabilitakoaz bestelakoa izan beharko du.

PINaz gain, erabiltzailea mugikorrek kontrolatutako faktore biometrikoen bidez ere sartu ahal izango da aplikaziora.

4. Izenpe Mobile erabiltzeko baldintzak onartu beharko ditu.
5. Izenpek instalazioko QR kode bat edo erregistro-kode bat sortuko du eta hura eskaneatu edo aplikazioan sartu beharko du erabiltzaileak.

QR kodea eskaneatzean edo erregistro-kodea aplikazioan sartzean, herritarren ziurtagiri ez-kualifikatu bat jaulkiko du Izenpek; hala, Izenperen biltegi zentralizatu seguru batean jaulkitako sinadura elektronikoaren ziurtagiri kualifikatua eta gailu mugikorra lotuko direla bermatuko da, eta sinadura-egintzetarako erabili ahal izango da.

5. ERABILTZEKO ESKAKIZUNAK

- Izenpe Mobile pertsona bakoitzeko gailu mugikor batean soilik erabili ahal izango da.
- Izenpe Mobile Android 5 (Lollipop) sistema operatiboa edo goragokoa duten gailuetan instalatu ahal izango da.

iOS-erako, iOS 10.0 sistema operatiboa edo gorakoa duten gailuetan instalatu ahal izango da.

6. BETEBEHARRAK

Izenperen eta erabiltzailearen betebeharrak: ikus identifikaziorako eta sinadurarako baliabide elektronikoak erabiltzeko terminoak eta baldintzak, www.izenpe.eus/condicionesuso.

7. ERANTZUKIZUNAK

Izenperen eta erabiltzailearen erantzukizunak: ikus identifikaziorako eta sinadurarako baliabide elektronikoak erabiltzeko terminoak eta baldintzak, www.izenpe.eus/condicionesuso.

8. INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA

Izenpek www.izenpe.eus/datos webgunean argitaratzen du pribatutasunari eta datu pertsonalen babesari buruzko informazioa.



9. ALDAKETAREN KUDEAKETA

IZENPEren Segurtasun Batzordeak onartuko ditu Politika honetan egindako aldaketak.

Berriazko dokumentazioaren bertsio eguneratuak www.izenpe.eus helbidean kontsultatu ahal izango dira.

10. ARAZOAK KONPONTZEKO MEKANISMOAK

Alderdiek elkarren artean sor daitekeen edozein gatazka Zuzenbide Kolaboratiboko prozesu bidez ebaztea adostu dute. Adostasunik lortu ezean, Gasteizko Epaitegi eta Auzitegietara jo ahal izango dute.